

EKFRASIAREN ETA ABANGOARDIAREN ERAGINA
***ISTURITZETIK TOLOSAN BARRU* POEMA-LIBURUAN**



Egilea: Galder Urzaa Arrien

Gradua: Euskal Ikasketak

Ikasturtea: 2014-2015

Lanaren izenburua: Ekfrasiaren eta abangoardiaren eragina
Isturitzetik Tolosan barru poema-liburuan

Tutorea: Natalia Vara Ferrero

Graduko saila: Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak

LABURPENA

Lan hau Joxean Artzeren *Isturitzetik Tolosan barru* estraineko liburuaren gaineko azterketa bat da, ekfrasiaren eta abangoardiaren ezaugarrietan oinarritua. Izan ere, poema-liburu hau ez da ohiko liburua, ez da liburu arrunta, ez da bat gehiago, behintzat. Lan artistiko oso moduan hartu behar da, bertsoez gain, hitzen formak eta liburuaren diseinuak ere pisuzko garrantzia dutelako sorkuntza lan honetan: tipografia, inprentalana, grafismoa, argazkiak, pinturak, musika... Ondorioz, arte adierazpen ezberdinak tartekatzen dituen artelan landua, sendoa eta konpletoa da, ez da poemen gordailu soila, “liburua objektu artistiko bezala” (Izagirre, 2000:7) har daiteke. Arte adierazpen horiek pintura, argazkigintza, eskultura eta musika dira, literaturaren osagarri. Literaturatik aparteko adierazpen artistikoak erabiltzeak, poemen dimentsioa handitzen du, semantikoki sendotasuna irabaziz. Aipaturiko adierazpen artistikoak ere jorratzeak, mezua sendotzen eta aberasten laguntzen duela esan dut, testuartekotasunaz baliatzeko bide berriak ere eskaintzen dituelako: EHko historiako pertsonaia garrantzitsuen argazkiak, Oteizaren eskulturgintzari keinu egiten dion hutsaren gaineko poema espaziala... Beraz, ekfrasiaren eta abangoardiaren ikuspegitik aberastasun eta ikergune oparoa eskaintzen du.

Lanaren hasieran, sarreraren ondoren, egilea aurkeztuko dut, datu biografikoak eta bere lanen berri emanez, orain arteko sorkuntza lanen aurkezpen txiki batekin. Segidan, liburuak argia ikusi zueneko garaia erakusten saiatuko naiz, hau da, testuingurua azaltzen. Testuinguruak garrantzia handia du, sorkuntzari oztopo handiak jartzen zitzaizkion garaia zelako, bai artistikoki, abangoardiak proposatzen zituen berrikuntzak garatzeko, bai ideologikoki, frankismoaren jazarpena saihesteko. Behin autorea eta testuingurua aurkeztu eta gero, lanaren mamira sartuko gara, ekfrasiaren eta abangoardiaren azalpen teorikoak emateko eta liburuan agertzen diren adibideak erakusteko. Atal honetako lehenengo zatian, ekfrasiaren definizioak (oinarrizkoenetik zabalago edo garatuagoetara) erakutsiko dira eta, ostean, liburuko ekfrasiaren azterketa eskainiko da; bigarrenean, berriz, abangoardiaren azalpena eta liburuan nabaritzen den eragina erakutsiko da, adibideekin lagundurik. Amaieran, ondorioak emango ditut: lanaren balio artistikoaz eta errebindikatiboaz, kritikaz eta lanaren oihartzunaz... Lanak eranskina dakar, ekfrasiaren eta abangoardiaren perspektibatik egindako azterketarako *Isturitzetik Tolosan barru* poema-liburuko adibide esanguratsuenak bilduz.

AURKIBIDEA

1. SARRERA.....	4.or.
2. AUTOREA ETA TESTUINGURUA.....	6.or.
2.1. AUTOREA.....	6.or.
2.2. TESTUINGURUA.....	8.or.
3. EKFRASIAREN ETA ABANGOARDIAREN AZTERKETA.....	11.or.
3.1. EKFRASIAREN DEFINIZIOAK.....	11.or.
3.2. EKFRASIA LIBURUAN.....	15.or.
3.2.1. HTZAREN DIMENTSIOAK ETA ADIBIDEAK.....	15.or.
3.3. ABANGOARDIA ETA HAREN ERAGINA.....	18.or.
4. ONDORIOA.....	22.or.
5. BIBLIOGRAFIA.....	24.or.
6. ERANSKINA.....	27.or.

1. SARRERA

Ordura arteko poesia moldeekin apurtu zuen Joxean Artzek *Isturitzetik Tolosan barru* lanarekin, inor epel utzi gabe. Poesia liburu hau ez da neurtitzetan idatzitako poemak adierazpen ohikora eta arruntera lerratzen, ez da poema-liburu bat bakarrik, adierazpen artistiko zabal-zabala eskaintzen du: pintura, musika, eskultura... Egilea artearen genero ugartan ikusia eta ikasia den seinale. Lan ausarta da garairako (egun ere izango litzateke holakorik egitea), berritzailea, eta are apurtzailea ere, den aldetik; anbiziotsua, liburuak eskaintzen dizkion aukera denak aprobeztatu nahi ditu, hitzaz gain (“Hitzaren alderdi guztiak ustiatzeko talentua” [Izagirre, 2000:8]) adierazi nahi duena albait osoen eta aberatsen adierazteko. Formatu eta teknika tradizionalarekin ez du nahikoa egileak bere etorria eta irudimena asetzeko. Poetaren bilaketa horretan, agerian du Europako abangoardia-mugimenduetatik edana: “Abangoardietatik, Chillida eta Oteiza eskultoreen obretatik nahiz milenarismo eta Garnierren espazialismotik¹ hurbil kokatu izan da Artzeren lehen lan hau” (Zuluaga, 2009). Horrez gain, orduko autore ezagunen eta mugimendu literarioen berri ere bazuela begibistakoa da bere obra ikusita, haien eragina nabari delako, besteak beste: Huidobro txiletarraren kreazionismoa, Espainiako ultraismoa (Guillermo de Torre), poesia konkretua eta bisuala² (Eugen Gomringer eta Guillaume Apollinaire). Gurean, euskarazko poesiagintzan, Artze dugu aurrekari hitza, hotsa eta espazioarekiko jolas horretan. Gogora dezagun Artzeren *opera prima* 1969an, frankismoaren testuinguru politikoaren barruan, sortzen dela; meritu itzela, beraz. Aipaturiko mugimenduak, goi-kulturako edo elitearen mugimenduak dira; abangoardia, oro har, elitearen joera izaten da. Kreazionismoa, ultraismoa, konkretu-espazial-bisualari dagokion poesiagintza zaila izan ohi da, ulertzen zailagoa. *Isturitzetik Tolosan barru* poema-liburuan autoreak goi eta behe mailakoak elkartzea lortu duela esan daiteke: abangoardiako lana dugu, baina, aldi berean, herriarengana hurbiltzeko ahalegintzen dena. Irakurle xumearengana hurreratzeko, herri hizkuntza erabiltzen du, esaera zahar eta atsotitzak, eta bertsolaritzako moldeak ere. Publiko zabalagoa erakartzeko asmoz, mezuaren sakontasunean sakrifikatzen badu ere (Lekuona, 1970), ez dio uko egiten mezu sakonak helarazteko nahiari ere (Retolaza, 2008). Ildo berean, esan behar da, hizkuntza errazten badu ere, irakurle aktiboa eskatzen duela, aktibo izan dadin

1 Espazialismoa ezagutzeko eredu egokia litzateke, Octavio Paz, Nobel eta Cervantes sarien irabazlearen *Topoemas* (1971) liburuari ere begiratu bat ematea.

2 Poesia bisualaren adibide bat ematearren, Octavio Pazek ingelesez idatzirikoa *3 notations/rotations* (1974) lana ezagutzea proposatzen dut.

kitzikatzen duela interpretazioan sakon dezan, obra osotasunean ulertzeko, behinik behin. Irakurlea hurbiltzeko, alde bisualarekin jolasten du, irakurtzera animatzeko erakargarri (poesia bisuala erakarpen estrategia moduan), baina, aldi berean, poema aberatsak eskaintzen ditu, konotazio ugari gordetzen dituena; arte adierazpen ezberdinen bidez, mezua ere aberasten du, irakurketa eta ulermena zailduz, batzuetan. Poesia bisualaren erakargarritasuna aprobetxatzen du, jakinik, berritasunak zailtasuna dakarrela ulermenean. Ezaugarri bat gailentzekotan, forma azpimarratu behar da, Artzeren experimentalismo formala. Poesia bisuala da bere ekarpen nagusia: kaligrama, tipografia (letra mota eta tamaina), testuaren orientazioa... hots-jolasak eta alderdi musikala ahaztu gabe (poema-liburua cd batekin lagunduta dator).

Artzeren helburua da garaiko abangoardiako literaturaren eraginak euskal literaturara ekartzea eta, ondorioz, euskal literaturak lekutxo bat hartzea literatura unibertsalaren barruan. Zailatasuna baina, handia da, poesia herrira hurbiltzeko nahiarekin ere jokutzen duelako, hau da, euskal poesian aldaketa nabarmena eragin gura du, aldaketa kualitatiboa (abangoardiako joerak ekarriz) zein kuantitatiboa (irakurleak erakarri eta kopurua haziz). Nire lanaren helburua, berriz, Artzeren *Isturitzetik Tolosan barru* poema liburuko ekfrasia aztertzea da, deskribapeneterako erabiltzen dituen baliabideak erakutsiz, gehienbat bisualak (bai ikusten dena hitzez deskribatuz bai sentipen bat kaligrama bidez adieraziz), baina lanean zehar ikusiko den moduan, baita bestelakoak ere: ukimenak eta dastamenak ematen digun informazioari esker, emozioen erabileraz, testuinguru-zehaztapenak ere lagungarri dira deskribapenetan... Efrasiaren jatorrizko definizioak deskribapena esan nahi du eta, definizio hedatuaren arabera, irudien (objektuen) deskribapena. Definizio horren arabera, ikusten denaren deskribapena litzateke, ikusmenaren bidez bereizten dugunarena, beraz, batez ere, ekfrasia poesia bisualean antzematen dela uler daiteke, baina ez bakarrik³. Izan ere, deskribatzen dena objektu baten forma izan daiteke (hitzen bidez egin daiteke, esaten denarekin, baina baita poemen formarekin, kaligramen laguntzaz, ere...), baina deskribapenean gure estimuluek harrapa dezaketen ezaugarri guztiak ager daitezke, hau da, bost zentzumenen bidez lor dezakegun informazioak elika dezake deskribapena⁴. Behin estimuluak aipatuta, emozioen eta sentimenduen garrantzia ere azpimarratzea komeni dela uste dut,

3 Egia esan, gehien lantzen duena poesia bisuala da, izan ere, Artzeren poesian ezaugarri nabarmenena formaren esperimentazioa da.

4 Artzeren poesiagintzan hotsen jolasak (musikalitateak) ere presentzia handia dauka eta, maila apalagoan, baita azalen dardarak eta kimikak ere, emakumeei eta sexuari buruz ari denean.

testu ekfrasioak karga emozionalez lagunduta baitatoz ia beti, irakurlea eragiteko eta kitzikatzeko ahalegina dagoelako atzean.

2. AUTOREA ETA TESTUINGURUA

2.1. JOXE ANTON ARTZE “HARTZABAL”

Joxe Anton Artze euskal poeta Usurbilen jaio zen 1939ko apirilaren 6an. Gaztetan Europan zehar ibilia, bertako kultur mugimenduak ezagutu zituen. Ondorioz, *Ez Dok Amairu* taldea sortu zuen Jexux anaia, X. Lete, M. Laboa, L. Iriondo, B. Lertxundirekin, besteak beste. Proiektu kultural hau suspergarria izan zen 60etan, euskal kantagintza berriaren sorrera eta etorkizuneko proiektuen abiapuntu eta bultzada, eta are gehiago, “inork gutxik jartzen du zalantzan mugimendu hura gaurko euskal kulturaren sehaska izan dela” (Garro, 2013). Artze, txalaparta-jotzaile moduan ere ezaguna den arren, 1968-1975 artean antolaturiko disko eta ikuskizunak lekuko: *Baga, biga, higa* (1969) edo *Ikimilikiliklik* (1970ko hamarkadaren hasieran), poeta moduan da ezagunago. Aitzindari izan da arlo askotan: experimentalismo formalean eta “olerkia plazara nahiz antzeztokira, askotan musika eta dantzarekin lagunduta, eraman duen lehen euskal poeta” (Zuluaga, 2009) izan delako.

Kritikaren arabera, Artzeren poesiagintza bi arotan banatzen da: 1969-1979 artekoa eta 1987tik aurrerakoa. Bi aroen artean isiltasun urteak izan ziren. Hona hemen bere liburuen aurkezpen txiki bat: *Isturitzetik... Tolosan barru* (1969): ezaugarri nagusia formaren lanketa da. Poema-liburu orijinala da, hainbat esparru artistiko jorratzen dituena (pintura, musika, eskultura...). Irakurle ez oso jantziengana hurbiltzeko ahalegina ere egiten du. Hurrengo poema-liburua bikoitza izan zen: *Laino guztien azpitik...* (1973) eta *...eta sasi guztien gainetik* (1973). Bilduma bikoitz honetan, berrikuntzak ekarri zituen aurrekoekiko: “munduak bizi duen ordena eza eta aniztasuna islatzen du testuetan eta autoreak aldaketak eta bilakabideak nahi ditu” (Zuluaga, 2009). Konponbidea elkartasunaren bidetik ikusten du autoreak, eta ez du jarrera neutralik onartuko. Estiloari dagokionez, bi ezaugarri nabarmentzen dira: irudietako sakontasun eta aberastasuna, eta erritmoaren leuntzea. *Bide bazterrean, hi eta ni kantari* (1979) Artzeren poesiako ziklo experimentalista ixten duen lana da: “Muturreraino eraman zuen usurbildarrak formarekiko zeukan obsesioa” (Zuluaga, 2009), liburu honetan irakurleari eskatzen diolako txikitako liburuetan bezala irudiak lotuz poemak idazteko.

Lehenengo aroko hiru poema-liburuok autoekoizpenaren bidez burutu zituen Artzek. Ondoren, zortzi urte eman zituen libururik argitaratu gabe. Isilaldiaren ostean, *Ortzia lorez, lurra izarrez* (Elkar, 1987) plazaratu zuen. Zuluagaren (2009) ustez, ordura arte alderdi formalari emandako garrantzia mugatu zuen, edukiari gehiago emanaz. Gehien erabiltzen dituen baliabide linguistikoak oximorona, kontrajarpena, simetria eta hitz-jokoa dira, “jatorrizko batasuna apurtu ostean agertutako bikoiztasuna” (Zuluaga, 2009). Gaiari dagokionez, Kortazarren (2003) arabera, “Budismoa eta erlijio tradizionalak daude gaien oinarrian”. Bigarren isilaldi baten ostean, aurreko obraren ildo beretik, *Mundua gizonarentzat egina da, baina ez gizona munduarentzat* (Elkar, 1998) argitaratu zuen disko batekin lagunduta. Garai ezberdinetako poemez eta argitaratu gabeez osatuta dago. Javier Rojok (1999) argi ikusten du Artzeren bilduma honetako helburu funtsezkoena: “Poetaren ardura nagusia izatea baita, zer den benetan izatea”, eta bere ondorioa da izatearen oinarrian maitasuna dagoela. Gaia garatzeko gehien erabiltzen duen baliabide linguistikoa paradoxa da: izatea eta iruditzea kontrajarriz, edota izatea eta edukitzea. Ostean datorren liburua *Oihana auhenka* (Jazzle, 2001) disko-liburua da. Liburu honetan naturarekiko lotura eta naturaren ikuspegi sosegatua nabarmentzen dira. Bere azken lana, dozena bete urteko beste isilaldi baten ondoren, lan bikoitz bat da; hobeto esateko, zazpi liburukik osatuko duten bilduma bateko lehen ale biak: *Heriotzaren atea dugu bizitza* (Elkar, 2013) eta *Bizitaren atea dukegu heriotza* (Elkar, 2013). *Ortzia lorez, lurra izarrez* liburuaren haria jarraitzen duela dirudi. Bitxikeria moduan esan behar da, orriak launaka lotuta daudela, hau da, irakurlea gutunak zabaltzen bezala joan behar da aurrera egin ahala.

Liburuz liburu berrikuntzak sartzan saiatu da: tipografia, kaligrama, irudiak, argazkiak, sinbolismoa, cd-ak, irakurleak irudiak lotuz idatzi beharreko poemak... Hau da, Artzek beti bilatu du bere liburuen hedatzea, hedatze artistikoa, dimentsio handiagoa hartzea, hitzaz gaindi, poema-liburuak -eta irudimenak- eskaintzen dizkion albait aukera gehien aprobetxatzea, beti jolaserako prest, berrikuntzarako.

2.2. TESTUINGURUA

Lan hau Artzeren lehen poema-liburuan oinarritzen da. Liburua garaian kokatzeko argitalpen urteari begiratzea baino ez dago: 1969. Frankismoaren azken urteak ziren, errepresio bortitza estatu espainiarraren partetik, debekuak, zigorrak... Garai zaila

kulturarentzako, oro har, folkloretik urruti, eta are zailagoa euskarazko literaturarentzat. Hala ere, Francisco Franco jeneralaren berrogei urte luzetako diktaduraren azkeneko urteen sartua, jazarpena handia bazen ere, malgutzen zihoan, eta artistak eta mugimendu artistikoak, zirrikitu txikienak ere aprobeitzatzeko prest zeuden, hau da, frankismoaren azken urteetan, diktaduraren gainbehera zela eta, errepresioa ere ahuldu egin zen. Ezin zitzaion susperraldi deitu, bizirauteko borroka une baitzen gehiago, diktaduraren atzaparrak ailegatzen ez ziren esparruak jorratzeko eta, hein batean, berrietara apaltasunez eta diskrezioz zabaltzeko. Horren seinale, *Ez dok amairu* proiektu artistikoa. Artze bera izan zen sortzaileetako bat, eta garaiko proiektio handieneko euskal artisten taldeko partaide, bere anaia Jexux, Benito Lertxundi, Xabier Lete, Lourdes Iriondo, Mikel Laboa, Jose Angel Irigarai, Nestor Basterretxea, Jorge Oteiza eta Julen Lekuonarekin batera. Taldekideak hainbat esparru artistikotako artistak ziren: idazle, kantari, musikagile, txalapartari, eskultore... Hasieran talde moduan egin zuten lan, proiektu komunak bideratuz, euskal kultur zapalduaren aldeko mugimendu gisa, euskal kantagintza berria lehenetsiz, zehatzago esateko. Taldea desegin ondoren, bakoitzak bere ibilbide artistikoari ekin zion, oso oparoa, luzea eta eragin handikoa zenbaiten kasuan; beraz, epe laburrean, euskal kulturaren indargarri izateaz gain, epe luzeagoan, taldekideen lan eta ekarpen pertsonala ezagutarazten eta bultzatzen ere lagundu zuen. Taldea disolbatu ostean ere, taldekideen elkarreragina ez zen erabat eten, adibidez, Artzeren poemak musikatu zituzten bai Mikel Laboak, Benito Lertxundik zein Xabier Letek ere, urrunago joan gabe; kolaborazio hauei esker, Artzeren hitzek dimentsio eta oihartzun handiagoa lortu zuten, eta abestiotako batzuk eresi bihurtu zirela esan daiteke: “Txoria txori”, “Gure bazterrak”... Aipatzeko modukoa iruditzen zait poesiagintzaren hedadura edo kontsumoa berez publiko murriztekoa izanda ere, musikarekin duen lotura estuari eta aspaldikoari esker, poesiak entzule (irakurle) berriak irabazten dituela, eta maila xumean eta esparru murritzean bada ere, Artzeren hitzek guregana iristen jarraitzen dute⁵.

Ez dok amairu talde artistikoaren ekarpen handiena, aipatu bezala, euskal kantagintza berria izan zen. Eredu gisa Kataluniako *Setze Jutges*, Frantziako eta Ameriketako kantariak hartu zituzten. Oso garrantzitsua izan zen kanpora zabaltzea eta korrante berriez bustitzea, euskal kultura, eta pentsaera, oro har, aberasteko. Euskal kantagintza

5 Sen musika taldeak (2000ko lehen hamarkadako taldea), Artzeren poema ugari erabili du bere abestien sorkuntzan.

berriaren helburua euskal kanta herrikoiak berreskuratu eta jendeak kantatzea zen, garaiko egora makurraren aurrean suspergarri izatea, tradizioa berreskuratzeko. Euskal kantagintza berriaren helburua, euskal kultura indartzea zen, euskalduntasunaren aldarrikapen bat, euskal nortasunaren isla, euskaldun izatearen harrotasun sentimendua. Apurnaka mezu politikoak, mezu konprometituagoak sartzen hasi ziren. Laboak musikaturiko Artzeren letra askotan “Frankismo garaiko giroa oso nabaria da, herriarekiko maitasuna, askatasuna eta konpromisoa” (Garro, 2013). Izan ere, taldekideak ez ziren elite mailakoak, artista gazte eta hasiberriak ziren, apaltasunez eta konpromisoarekin, oztopoak oztopo, ekiten zutenak, goraipamen pertsonalagatik baino herri mailako helburu baten alde, militantziaz asko zeukan lanean.

Taldeak 1965etik 1972ra arte iraun zuen; epe laburra baina oparoa eta, batez ere, etorkizunari bideak zabaltzen lagundu zuena; laburra baina eraginkorra, beraz. Esan daiteke, *Ez dok amairu* artista-taldea zutarri izan zela euskal kulturaren erresistentzian, inflexio puntu bat markatu zuen. Banaketaren ostean, taldeak lortu zuen susperraldiari esker, kantagintzaren eszena indartu eta hedatu zenean (pixkanaka eta kontu handiz, frankismoak oraindik irauten baitzuen), bakoitzak bere bideari ekin zion, zein baino zein emankorragoa, taldekide batzuk ospe eta oihartzun handia lortu dute denborarekin, euskal sorkuntzako izen garrantzitsu bilakatuz: Mikel Laboa, Benito Lertxundi eta Xabier Lete, euskal kulturgintzaren ikurrak dira gaur egun, itzal luzeko euskal tradizioaren gordetzaile, berritzaile eta sortzaileak.

Euskal erakunde publikoetatik ere aurrerapenak etorri ziren, Euskara Batua, batez ere, garrantzitsuena. Euskaltzaindiak Euskara Batua (1968) finkatu berri zuen, artista euskaldunen sorkuntzan ere eragin nabarmena izan zuena; guztiek hizkuntza bera erabiltzeak mezuaren zabalkundean lagundu zuen, irakurle/entzule kopurua haziz, eta batasun eta normalkuntza sentimendua sustatuz eta sendotuz. Hizkuntzaren normalkuntzarako ezinbesteko harria jarri zuten, eta momentuan gai arantzatsua eta gatazkatsua izan arren (kontrako joerak izan ziren, euskara batuaren irudikapen edo eredu ezberdinak), urteekin ikusi da zein garrantzitsua izan zen euskal literaturaren garapenerako eta zabalkunderako ere. Herri mailako bestelako mugimenduen artean, ezin aipatu gabe utzi, Gerediaga elkarteak bere lehen liburu azoka prestatu zuela garai honetan, 1965 zehatzago esateko. Azoka honek bultzada itzela eman zion liburuen zabalkundeari eta autore berriak promozionatzeko ere balio izan zuen, hau da, literatura

herrira hurbiltzeko egitasmoa izan zen, batik bat. Denborarekin, euskal liburu azoken artean ikur bihurtu da, handiena eta ezagunena.

Poemetako gaiak garaiko egoerari lotuak daude, baina “gaiak ematen dira ikuspegi berritik, indarrean zeuden ideiekiko oldarkor” (Galarraga, 2012), hau da, frankismo sasoian bizitzea tokatu zitzaizen askatasun ezaren eta zapalketaren kontrako jarrerarekin, askatasuna aldarrikatuz. Gai zentralak euskara, amaren ingurukoak, geografia dira Sarasolarentzat (Etxeberria, 2013); Lekuonarentzat (1970), berriz, askatasuna, euskalduntasuna, emakumea. Lekuonarena orokorragoa bada ere, egokiagoa dela uste dut, Artzeren hitzek espektro zabala hartzen baitute. Are gehiago, Izagirrereren (2000:8) ustez “gizarte kapitalistan ez etsitzeko ahalegin poetikoa” da liburu honen helburua. Boterearen kontra altxatzen diren hitzak dira Artzerenak, batez ere, morrontzaren kontrakoak Retolazaren arabera (2008): “elizarekiko eta fedearrekiko morrontza, familiarekiko morrontza, lanarekiko morrontza, hizkuntza-ereduarekiko morrontza eta genero-ereduekiko morrontza. Alegia, morrontza-egoerak salatzen ditu Artzek.”

Frankismo garaian, errepresioagatik, baina baita orduko baliabideen urritasun eta mailagatik, *Isturitzetik Tolosan barru* lan zaila eta luzea izan zen. Mikel Garai arduratu zen poema espazializatzear, eta berak dioen moduan, zortzi hilabeteko lana izan zen (Etxeberria, 2007). Lan handia izan zen, erronka handi bati aurre egitera zetorrelako: euskal poesiagintza (eta literatura, oro har) literatura unibertsalarekin bat egitea, hau da, garaiko joera eta estilo abangoardistak biltzen dituen lan garaikidea eraikitzea. Konplexuak galdu eta mundu garaikidearekin bat egiten lagundu zion liburuak euskal kulturari, horregatik, Izagirrek (2000:7) *harrotasun nazionalaz* hitz egiten du, eta ez da iritzi isolatua, J.A. Irigaraik eta X. Letek ere “euskaldunak harrotzeko modukoa” eta “euskal kultura eta literatura harrotzeko modukoa” (Etxeberria, 2007), hurrenez hurren, izan zela onartzen dutelako.

Publiko zabalarentzako zuzendua dago liburua, horregatik, erabiltzen duen hizkuntza ulergarria eta gertukoa da, hala ere, mezu sakonei uko egin gabe. Irakurle xumearengana hurbiltzeko ahaleaginean, herri hizkuntzaren eragina (atsotitzak, bertsolaritza, sorgin hizkuntza...) nabaritzen zaio liburuari, hau da, darabilen hizkuntza sustraitua da, baina, aldi berean, unibertsala, garaikidea, gaurkotasunezkoa ere badela uste du Irigaraik (Etxeberria, 2007). Harrigarria da ezaugarri guzti horiek gaur arte iraun dutela liburuan, beharbada, Letek (Etxeberria, 2007) dioen moduan, ezohikoa izaten jarraitzen duelako

gaur ere, gisa honetako liburuak oso gutxi direlako euskaraz. Urteei eusteko arrazoiak hainbat dira: garaiko egoera latzaren lekuko bihurtzea (izaera konfesionala deitu diezaiokeguna), esperimentazio formalaren ezohikotasuna (kaligramak...) eta, ondorioz, erakargarritasuna, poema asko kantu bihurtu izana (“Txoria txori”, “Txori ttikia”, “Ama hil zaigu”...), adibidez. Horregatik Landabasoren (2007) galdera: “Berrogei urteko kanta al da? eta bai, bada”, eta hori berresten du, hain zuzen ere, berrogei urteren ondoren liburuaren edizio berri bat (Pamielaren eskutik) argitaratu izanak.

3. EKFRASIAREN ETA ABANGOARDIAREN AZTERKETA

3.1. EKFRASIAREN DEFINIZIOAK

De la Callek (2005:11) zehaztu bezala, ez da kasualitatea idazteari eta pintatzeari erreferentzia egiteko termino bera erabiltzea: “graphê”, “graphie”; eta honek elkarren arteko asimilazioa eta elkarreragina erraztu zuela uste da. Aipaturiko elkarreraginaren esparruetako bat ekfrasiarena litzateke, hau da, irudi plastiko bati buruzko diskurtsoa, gehienetan deskribapenezkoa (De la Calle, 2005:12-13), ekfrasiaren definizio hedatuaren arabera⁶. Hiru definizio proposatzen ditu Monegalek (2000, 141-142) ekfrasiarentzat:

- a) Arte plastikoetako (pintura edo eskultura, batez ere) objektu bat hitzez imitatzeko ahalegina.
- b) Irudi bisual baten hitzezko baliokidea.
- c) Arte plastikoetako objektu baten hitzezko baliokidea eraikitzeke ahalegin literario oro, hau da, goitik beherako edo objektu oso bat.

Monegalen (1998: 41) arabera, erretorika helenistikoan ekfrasiak deskribapena esan nahi zuen, idatzitakoaren irudia irakurlearen irudimenean pizteko baliabide moduan ulertuta; poema ikonikoek, berriz, deskribapenaren aldaera bat iradokitzen digute, hau da, kaligrama bidezko pintura-lanen deskribatzea. Ekfrasiaren adibide tradizionalena eta aipatuena *Iliadako* XVIII Kantuan Homerok egiten duen Aquilesen ezkutuaren deskribapena da. Garcíaren (2011:29) iritziz ez da askorik idatzi ekfrasiak, eta nahiz eta literatura espainiarrean etengabea den haren presentzia, ekfrasiari buruzko lan garrantzitsuenak bi literaturalditan oinarritzen dira: Urrezko Mendea⁷ eta 98ko

⁶ Hala ere, ekfrasia ez da deskribapenera bakarrik mugatzen, hizkuntza menderatzen duenaren frogapen edo erakustaldia ere bazen, eta gaitasun horretaz harrotzeko modua (De la Calle, 2005:10).

⁷ Urrezko Mendea Nebrixaren *Gramática castellanarekin* (1492) hasten da, eta Calderónen heriotzarekin (1681) amaitu.

Belaunaldia⁸. Gerra Zibilaren ostean, berriz, Ángel González har daiteke poesia garaikide espainiarraren barruan aurreneko zatik ekfrasiaren erabilerari dagokionez (García, 2011:100).

Ekfrasia irudi bat hitzetan jartzea litzateke labur esanda, eta hitzen bidezko azalpen bat irudi moduan (ikusgarri) jartzea, ikusaraztea, berriz, hypotiposia; hala ere, askotan, bien arteko lotura edo harremana hain estua eta simetrikoa da, joan-etorriko bide bat dela: testutik irudira eta iruditik testurakoa (De la Calle, 2005:15-16): *irudia* → *ekfrasia* → *hitza* eta *hitza* → *hypotiposia* → *irudia*. Antzinako Greziaz Berpizkundera arte, poesiak *enargeia* lortzeko gogoz garatu izan du ekfrasia (Monegal, 2000:147). *Enargeia* deskribatzen denaren besteko ona den emaitza bat lortzeko hitzen bidezko deskribapena da, irakurleari ikusarazteko besteko deskribapen bizia; hain zuzen ere, hizkuntzaren arteak lor dezakeen dehinik handiena (Monegal, 2000:146).

Deskribapenari dagokionez testu ekfrastiko ezberdinak ezagutzen dira (De la Calle, 2005:17-20):

- a) Objektu artistikoarekiko funtzio denotatiboa duena, hau da, objektibitate handieneko testu ekfrastikoa⁹.
- b) Pisu handiena irudiaren objektu estetikoari ematen diona, hau da, esperientzia estetikoaren prozesu eta ondorioei¹⁰.
- c) Irakurlearekin loturak egiten dituen, irakurlearengan erantzun edo erreakzioa eragiteko^{11,12}.
- d) Obraren testuinguruarekiko (egilea, kokapena, gaur eguneko egoera, historia edo hastapenak, aurreko testuekiko lotura posibleak...) loturak erakusten dituen¹³.

8 Belaunaldi honetan, 1864-1876 artean jaiotako autore eta poeta handiak sartzen dira.

9 Ikus 6.1. eranskina. Deskribapen objektiboa ematen dela esan daiteke, deskribapen bisuala, gehienbat, entzutezko adibide batekin (“kantua toteltzen”).

10 Ikus 6.2. eranskina. Hasierako deskribapenaren helburua ez da egoera erreal bat deskribatzea, irakurlearengan erreakzio bat sortzea baino.

Ikus 6.3. eranskina. Nortasunari dagokion baliokidetasun tradizionala erakusten digu, kontzientziak eragin eta norbere kabuz pentsarazteko, arbasoena ukiezina ez dela iradokiz.

Ikus 6.4. eranskina. Pobrearen zoritxarra deskribatzeko, irudi irreal eta lotsagarri bat aurkezten da, umore etsiaz, irakurlea probokatzeko.

11 Ekfrasi zaharrean, jadanik, Bigarren Sofistikaren eskutik, pinturretan lantzen zen gaiaren berezko emozioak eta sentimenduak lehenesten ziren, alderdi plastiko eta formalei garrantzia gutxiago emanez (De la Calle, 2005:20).

12 Ikus 6.5. eranskina. Izen historiko bat hartzen du abiapuntu eta, hura gaitzesteko (haren misoginia), zirikatzailerak erasokor zuzentzen zaio irakurleari, haren kontrakoa predikatuz. Emakumearen plazer sexualaren aldeko balioespen esanguratsua ere bada, ausarta garairako eta, gizon batengandik etorrira, balio erantsia duena.

13 Ikus 6.6. eranskina. Autoreak lehen pertsonan deskribatzen du bere patua. Deskribapenean testuingurua (frankismo garaia, inposaketa garaia) islatzen laguntzen duten hitz gakoak daude:

Ekfrasiaren oinarrian dagoena, beraz, badirudi “deseo de capturar el mundo en la palabra [the world in the word]” (Kriger, Monegalen 1998:41) dela, hau da, hitzaz gaindikoa ere hitzetan islatzeko nahia. Komunikazioko mugak hitzeko estrategia berritzaileen bidez gainditzeko helburua dute ekfrasia darabiltenek (García, 2011:15). Definizio honek ekfrasiaren espektroa zabaltzen du, poesiak pinturaren ezaugarriak hartzeaz gain, gainerako adierazpen artistikoen (eskultura, musika...) ezaugarriak hartzera ere hel daitekeela iradokiz. Arte ezberdinen bidezko sorkuntzarekin, diskurtso berria sortzen du ekfrasiak, edo diskurtso batetik sortzen den beste diskurtso bat (García, 2011:13). Oro har, hitzen balio semantikoa zabaltzeko balio du, horretarako, arte adierazpen ezberdinak baliatzen dira, hitzaren mugak eta dimentsioak zabalduz. Angel Gonzálezen poesiagintzan ere, garrantzitsuena irudi bisuala da, baina baita, maila osagarri batean, entzumena, usaimena eta ukimena¹⁴ kitzikatzen duten baliabide ekfrastikoak (García, 2011:96). Gonzálezen helburua egia bilatzea da, horretarako hitzaren muga gainditzen duten baliabideak erabiltzen ditu; beraz, ekfrasia aurkikuntzarako lanabesa da Gonzálezentzat, “como un medio a la verdad” (García, 2011:99).

Bestalde, literatura eta arte bisualen arteko loturen gaineko hasunarketak tradizio luzea du, Antzinaro klasikotik, Platon eta Aristotelesengandik, baina adierazpen ezagunenak Simonidesenak (pintura: poesia mutua) eta Horaziorenak (poesia: hitz egiten duen pintura) dira (Monegal, 2000:9). Horregatik, ohikoa da poetak pintoretzat hartzea, are Bigarren Sofistikak Homero¹⁵ bera pintore “printze” moduan hartzen zuen, haren deskribapenerako gaitasuna eta indar didaktiko bisuala zela eta (De la Calle 2005:14-15). Poesiak eta pinturak hurbildu eta bat egiten dute, elkar ustiari eta bata bestea argitzen du ezagutza-aurrerapenak lortzeko (Bou, 2001:58).

Erretorikak bere testuen motibazioa irudien deskribapenetatik eta iruzkinetatik lortu duen moduan, pinturen ekoizpena ere ondare literarioetan oinarritu izan da gaiak aukeratzerakoan (De la Calle, 2005:11). De la Calleren (2005:25) iritziz, hitzek irudia deskribatu badezakete, irudiek ere hitzetan dagoena erakutsi dezakete, irudien eta testuen arteko elkarrekotasuna; hala ere, testuen eta irudien arteko ezberdintasunak

“presondegiaz”, “kristautu”, “eskoletan erdal”, “morrontzari”.

14 Artzeren adibideen artean ere ugariak bisualak izan arren, maila apalagoan, ukimena (emakumeari eta sexuari erreferentzia egiteko, ikus 6.7. eranskina) eta dastamenaren (ikus 6.8. eranskina) bidezko ekfrasia ere antzematen da.

15 Luciano de Samosata aitzindaria ahatu gabe (De la Calle 2005:14).

direla eta, zailtasunak sortzen dira ekfrasia eta hypotiposiaren praktikarako. Izan ere, testuetan hitzek bata bestearen ondorengo ordena lineala mantentzen dute, eta irudiek momentu edo instant bat islatzen dute; beraz, hona zailtasuna: ondoz ondoko kate moduan ematea momentu edo instant batekoa, eta alderantziz. De la Calleren (2005:26) arabera, literaturaren eta plastikaren elkargune horretan, deskribapen-testuaren egilea irudi finkoaren ahulezia, hau da, bere izaera estatikoa gainditzen edo konpentsatzen ahaleginduko da; bestalde, deskribatzen beti zailak diren irudien bat-batekotasuna eta momentu konkretua diskurtsoaren harian (ondoz ondoko ordena linealean, nahitaez) sartzen ahalegindu beharko da. Beraz, oso garrantzitsua da deskribapenerako autoreak aukeratzen duen ordena, bai eraginkortasun komunikatiboaren ikuspegitik, baina, batez ere, alde estetikitik; izan ere, deskribatzea aukeratzea da, eta prozesu horretan erabaki estetiko eta didaktikoak sartzen dira beti (De la Calle, 2005:27).

Literaturaren eta pinturaren arteko anaitasuna onartu arren, bien arteko ezberdintasun nabarmenen lekuko izanik, batak bestea azpiratzeko iritziak eta iruzkinak izan dira, hau da, bat besteari gainezartzeko ahaleginak. Neoplatonikoen ustez, helburua aurpegiko begiekin barik adimenaren begiekin begiratzea bihurtzen denean frogatuko da, hitzezko arteen (ulerkorra) nagusitasuna arte plastikoen (sentikorra) gainetik; are gehiago, neoplatonikoentzat hitzezko arteek arte bisualen abantaila guztiak dituzte, eta haien mugetatik aske geratzen dira (Monegal 2000:153). Izan ere, bitarteko literarioa sentikorra ere izan daiteke, eta sentikorra denak ulergarria dena aberats eta lagun lezake (Monegal 2000:158). Hala ere, badira kontrako iritziak ere, hizkuntzaren artearen mugak azpimarratzen dituztenak¹⁶, haien artean irudien deskribapenean erabiltzen den hizkuntza baldarra eta metaforikoa baino ezin omen daitekeela izan, hizkuntzaren arteari bereak ez diren ezaugarri espazial eta bisualak hartzeko ahalegina eskatzen zaiolako (Monegal 2000:146). Guzti honekin, kontua da Monegalek (2000:158) dioen moduan, gaur egun, literaturak eta kritika literarioak¹⁷ euren terminoak inposatzen dizkiela gainerako arte guztiei (diskurtsoaren arteei ere).

16 Neoklasikoek “arte anai”tzat jotzen dituzte literatura eta pintura, baina pintura gainezartzen dute (Monegal 2000:155-156).

17 De la Calleren (2005:16) ustez, ekfrasia eta kritika literarioak harreman estua dute eta gero eta zailagoa da kritika eta artelanaren arteko erlazioa definitzea edo zehaztea; izan ere, ekfrasia obraren efektu bat bezala ulertzen da, baina, era berean, bera ere obratzat har daiteke, horregatik, kritika genero literarioen artean “genero pirata” dela dio De la Callek (2005:16), autobiografia izan daitekeen moduan.

3.2. EKFRASIA LIBURUAN

Aurretik aipatu bezala, ekfrasiak hitzen balio semantikoa zabaltzeko balio du arte adierazpen ezberdinen elkar eragitearen bidez, hitzek euren kabuz lor ezin dezaketen dimentsio semantikoa eskuratzeko, “hitzaren dimentsio guzti-guztiei garrantzia emanez” (Retolaza, 2007). Kortazarren hitzetan (2007), aztergai dugun, *Isturitzetik Tolosan barru* liburua: “arte oso ezberdinen koktela da: poesia eta grafismoa, inprenta-lana eta pintura, musika eta poesia espaziala. Era askotako arte desberdinak errealitateak osatzen duen poliedroa agertzeko asmoz, espresio bakar batek, poesiak, hartu ezin balu bezala” Artzek, bere hitzek zentzu osoago edo beteago bat har dezaten baliatzen du ekfrasia, poesia, irudia eta musika nahastuz, hau da, hitza, espazioa eta erritmoa; “paperaz gaindiko euskarrien aldarrikapena egiten da” (Retolaza, 2007). Izagirrerren (2000:8) ustez, “Hitzaren alderdi guztiak ustiatzeko talentua” erakusten du Artzek. Retolazak (2008) poesia eta pintura, musika eta eskulturaren arteko disziplinarartekotasuna azpimarratzen du, alde bisuala, fonikoa eta espaziala, batez ere. Esan daiteke, disziplinarartekotasun hau *Ez dok amairu* taldeko kideen arteko elkar eragitearen emaitza izan daitekeela. Esan behar da, arte adierazpen ezberdinak poemetatik aparte liburuaren egituran ere antzematen direla, “estreinakoz, liburua objektu artistiko bezala” (Izagirre, 2000:7) ikusten da. Aipatutako ezaugarriak jarraian datorren atalean erakutsiko dira adibide zehatzen bidez.

3.2.1. HITZAREN DIMENTSIOAK ETA ADIBIDEAK

Artzek, eskura dituen baliabide guztiez, edo al bait gehienez, baliatzeko ahalegina egiten du. Poesiaz (hitzaz) aparteko bitartekoak (musika, hots-jokoak, ahotsa¹⁸, eskultura, pintura eta argazkia) erabiltzen ditu adierazi nahi duena janzteko asmoz. Retolazaren (2007) iritziz, ohiko poesiagintzak betetzen ez dituen hainbat hutsune betetzen ditu: “ahozko hitzaren eta hitz idatziaren arteko mugako espazio hori, irudiaren eta hizkuntzaren arteko mugako espazio hori, musikaren eta hitzaren arteko mugako espazio hori”. *Isturitzetik Tolosan barru* liburuan nabarmentzen dena formaren esperimentazioa da: poemen orientazioa, tipografia, poema batzuek sortzen duten irudia... hau da, poesia bisualaren lanketa. Arlo honetan, kaligramaren¹⁹ erabilera da

18 Gogoratu liburuak cd bat dakarrela, poema zenbait Artzeren ahotik erreztatuta entzuteko.

19 Ikus 6.9. eranskina. Testuaren formak txori (bakearen uso zuria, zehazki esateko) baten hegada iradokitzen du, edo haren arrastoa.

Ikus 6.10. eranskina. Testuaren bitartez zurrunbilo bat irudikatzen du autoreak.

baliabide ugariena. Iturbidek (2000) itxuraldaketa moduan ere ulertzen du kaligrama eta, beraz, humanismoarekin ere lotu daitekeela uste du “gizakiari leiho grafiko bat ireki dakiokelako, bere kabuz pentsaraz diezazkiokeen leihoa eta bidea”.

Artzek publiko zabalari eskaintzen dio bere poesia, herri hizkerara hurbilduz (atsotitzak, bertsoen ikutuak, sorgin hizkuntza...), baina bere esperimenezkoak, aldi berean, irakurle saiatua eskatzen du poemak osotasunean ulertzeko. Testuartekotasuna identifikatzeko eta interpretazioan sakontzeko ahalegina egin beharko du, beraz, irakurleak. Aurreragoko adibideen bidez ikusiko da argiago bai ikutu herrikoiak (edo herri jakituari dagozkionak) eta baita berritasunen eraginez irakurle xumeari zor dakizkiokeen ulermen zailtasunak. Ekfrasiak hiru aurpegi dituela uste dut liburuan, bakoitzean hitzak dimentsio berri bat hartzen du, hitzaren mugak gainditzen lagunduz. Beste era batera esanda, ekfrasiari dagokionez, poesia eta beste hiru adierazpen artistikoren (musika (hotsa), pintura eta eskultura) bategitea ikusten dut liburuan zehar.

Hitzaren eta pinturaren arteko lotura da gehien ikusten dena; kasuren batean, bien presentzia hain nabaria izanik, pinturatik gehiago edo olerkitik gehiago duen ez jakiteraino²⁰. Esperimentalismo formalaren lanketa eta garapena azpimarratzekoa da Artzerengan, eta gorago aipaturiko kaligramaz gain, tipografia²¹ (letrakera, tamaina, larriak eta xeheak...) eta inprenta-lan²² (hitzen eta testuen orientazioa, koloredun orrialdeak...) eskerga antzematen da. Liburuko mamian ez ezik, azalean bertan ere badira irudi²³, argazki, collage... bidezko adierazpen piktorikoak. Aurreko azalean²⁴ euskal munduko pertsonaia eta irudi garrantzitsuenetakoak agertzen dira: Bonaparte, Zumalakarregi, Matalas, akerra, baserria, eliza, Bilintx, Bernard Etxepareren “Emazteen fabore” poemaren pasarte bat... Testuartekotasunaren (data eta datu historikoak²⁵, izen ezagunak, eskaintzak...) bidez, tradizioa berplanteatzeko eskatzen zaio irakurleari, “tradizioaren ikurrak eta diskurtsoak [...] berrasmatzeko beharra [...] irudiek eta hitzek

Ikus 6.11. eranskina. “LANA” hitza errepikatzen eta pilatzen da, astuntasuna, monotonia, lotura... iradokitzen dituelarik, “lanaren morrontza irudikatze asmoz” (Retolaza, 2008).

20 Ikus 6.12. eta 6.13. eranskinak. 6.12. adibidean, eskuzko idazkera imitatzen da, eta hitzekin garun itxurako irudia osatzen da, “marrazketaren eta idazketaren arteko harremana irudikatzen da horrela” (Retolaza, 2008).

21 Ikus 6.10 eta 6.14. eranskinak. Batean, letrakera ezberdinak, tamaina ezberdinak, larriak eta xeheak, sinboloak eta ikurrak agertzen dira. Bigarren adibidean, berriz, letra tamaina da, tipografiari dagokionez, bereizgarri bakarra.

22 Ikus 6.15. eta 6.16. eranskinak. Batak, hitzen atzeko aurrerako hurrenkera erakusten du. Besteak, berriz, testuaren orientazio diagonalak.

23 Irudiak Jose Luis Zumeta pintorearenak dira.

24 Ikus 6.17. eranskina.

25 Ikus 6.25, 6.26 eta 6.27 eranskinak. Adibideotan datu biografiko eta bibliografikoak ematen dira.

tradizioaren berrirakurketa iradokitzen dute” (Retolaza, 2008). Liburuaren atzeko azalean²⁶, berriz, ahozko literaturaren pasarte batzuk ageri dira (XV. mendeko Bereterretxeren kantorearena...) eta, Retolazaren ustez (2008), sorginen tradizioarekin (edo tradizio paganoarekin) lotura izan dezaketen akerra (deabruaren iruditzat ere hartu izan dena) eta emakume biluziaren irudiak. Atezko azalean, ahozko literaturaren pasarte zatiez gain, Euskal Herriaren historiako data garrantzitsu batzuk ere ageri dira: 1200, 1332, 1379, 1553. Aurreko eta atzeko azaleko hitz, irudi eta datek esangura garrantzitsua dute autorearentzat, ez da zorizko pilaketa bat, baizik eta Euskal Herriko historiari egindako keinuz betetakoa.

Eskulturak ere presentzia handia du Artzeren liburuan, nabaria da Oteiza (batez ere) eta Nestor Basterretxearen eragina, hirurak ere *Ez dok amairuko* taldekideak. Liburu barruan, gainerako testuarekin fisikoki lotura barik, zabaltzen denean lau horma itxurako eraikin forma hartzen duen orri bildu bat²⁷ dator Oteizaren hutsaren ideia iradokitzen duena, “hustasunaz eta espazioaz gogoeta” (Retolaza, 2008). Garai hartan Oteiza oihartzun handiko pentsalaria zen, eta orduko artista eta intelektualen artean estimatua.

Hitzaren eta pinturaren (argazkia, collage...) arteko loturaz gain, hitzaren eta hotsaren arteko lotura ere agertzen da liburuan, musikalitatearekin ere lot dezakeguna. Retolazak (2008) “hitzaren dimentsio akustikoa” deitzen dionaren bi adierazpen nabarmenenak bi dira: batetik, liburuak dakarren cd-an poema batzuk erreztatzen dira, honenbestez, irakurlea entzule ere bihurtzen da, poema horiek autorearen ahotsetik entzuteko aukera duelako, hark ematen dion entonazio, tempo, intentsitate eta abarrek aberastua; bestetik, jolas ugari egiten du hitzen hoskidetasunarekin eta musikalitatearekin, jolas foniko²⁸ nabarmenezko poemak eskainiz.

Paratestuak garrantzia handia dauka Artzeren estraineko *Isturitzetik Tolosan barru* liburuan. Besteak beste, aipatu ditugun aurreko eta atzeko azaleko argazkiez gain, aurkibidearen originaltasuna ere nabarmena da: aurkibidea mapa²⁹ bat da eta, bertan, “Zuberoatik Gipuzkoara eginiko bidaia irudikatzen da; alegia, bazterretik zentrorantz eginiko bidaia, hizkuntzaren ereduari kasu eginez gero” (Retolaza, 2008). Hala ere, ez

26 Ikus 6.18. eranskina.

27 Ikus 6.19. eranskina. Orri bildu bat da, zabaltzean lau horma altxatzen zaizkiona. *Ez dok amairuko* buruetako bat zen Oteizaren hutsaren ideari erreferentzia egiten dio.

28 Ikus 6.20. eta 6.21. eranskinak. Batean, grafikoki antzekoak diren hitzen arteko joko fonikoa ageri da. Bestea, aldiz, zeta soinuaren jolasa da.

29 Ikus 6.22. eranskina. Aurkibidea EHko zazpi probintzietako herrien izenez osatuta dago.

dira paratestuaren adibide bakarrak, eskulturarekin lotu dudan Oteizaren hutsaren ideia gogorarazten digun kubo formadun egitura ere esanguratsua da, eta baita liburuaren atzeko azalaren barrualdeko mezu ezkutudun gurpila ere. Horrez gain, edizioaren inguruko datuak, azken hitza eta oharra, liburuaren erdian kokatzen dira, ohituta gauden logika apurtuz, “Espazioan irudikaturiko botere-harremanak agerrarazi eta irauli egin nahi dira, goitik beherako hierarkiarik gabeko espazioa sortuz” (Retolaza, 2008), berritzailea dela erakutsiz atal guztietan, muturreraino eramanez.

3.3. ABANGOARDIA ETA HAREN ERAGINA

Artzeren ibilbide literarioa abangoardiaren barruan kokatu behar dela uste dut, izan ere, etengabeko bilaketa lana da berea, beti berritzaile izateko asmoz eta irakurlea erakarri, harritu, probokatu eta eragitearen alde. Era berean, irakurleari ulertzeko ahalegin gehigarri bat eskatuko dio, tradizioarekin apurtzen duen idazkera erabiltzen duelako. Abangardia freskotasunarekin eta aurrerapenarekin lot daiteke, ideologikoa (morrontzaren kontrakoa, askatasunaren alde) eta estetikoa (esperimentalismo³⁰ formala), batez ere. XIX. mendean estetikaren kontzeptua bera ere aldatu egin zen, konformismoa alde batera utziz:

La estética hasta el siglo XIX fue presidida por la obsesión de conseguir obras bellas y no obras nuevas [...] la delectación del público y no la alteración o la provocación. [...] El arte nuevo, entonces, surgió del abandono sistemático del arte antiguo (Bou, 2001:57).

Estetika ulertzeko moduz gain, igorle (autore) – hartzaile (irakurle, ikusle) harremana ere aldatu zen (Bou, 2001:55), eta baita, Benjaminen utez, arte-adierazpen forma ezberdinak garatu ere. Bouren (2001:57) arabera, abangoardiaren ekarpen estetiko orijinalari esker, artea, lege propioak dituen hizkuntza autonomo gisa hartzen hasi zen. Adierazpen formula zaharren ordeztu, kaligrama, *collagea*, hitz askea, idazkera automatikoa³¹... erabiltzen hasi zen. Era berean, intimitatearen ideia ere aldatu zuen abangoardiak, ohiko bizimodu arrunta bizitza autentiko batek ordezkatu zuelarik. Beraz,

30 Esperimentalismo espainiarraren lagin interesgarria dakar Alfonso Lopez Gradoliren *Poesía Experimental Española (Antología incompleta)* (2012) liburuak.

31 Ikus 6.23 eta 6.24 eranskinak. Badirudi inkontzienteki ateratako hitzek osatzen dituztela adibideok, hau da, libre eta galbahe gabe idatzitakoak direla.

burgesia eta tentaldi politiko-mistikoak mesprexatzen ziren, paradoxari eta probokazioari atek irekiz.

Abangoardiak bi aldi nagusi izan zituen (Kortazar, 2008): 1910-1920/30 artekoa eta 1950-1960 artekoa. Andrés Soria Olmedoren arabera (Fernández Serrato, 2003:50), abangoardia literarioa 1910ean ailegatu zen Espainiara, hain zuzen, Gómez de la Sernaren eskutik. Espainiako abangoardia bisualaren buruetako bat³², aldiz, Fernando Milla dugu, Cirilot eta Brossa kataluniarren eskolak ahaztu gabe (Rubio & Falcó, 1984:55). Abangoardia modernismoaren adar bat da, modernismoaren hiru adarretako bat, hain zuzen (Kortazar, 2008): erromantizismoa (XIX. mende hasieran, “lehen aldiz klasizismoaren aurka eta irrazionalismoaren alde, idealismo filosofikoaren eraginpean”), sinbolismoa eta abangoardiak (XX. mendearen hasieran Europan, “idazleek bat-batekotasunaren alde eta irrazionalismo poetikoaren aukera”). Kortazarrek (2008) dioen moduan, elkarren segidan sorturiko joera berritzaileetan (dadaismoa, kubismoa, surrealismoa...) oinarritu zen abangoardia, ezaugarri komun batekin: arte plastikoetako (pintura eta zinema, batez ere) joerekin lotura mantentzea. Abangoardia ahalegindu zen aurreko joerak (tradizioa) baztertu (estetika errealista, naturalista edota sinbolista), eta arte adierazpenetan molde (forma estetiko) berriak bilatzen, “eragin moral, politiko eta erlijiosoetatik askatzeko ahalegina eta askatasun osoaren nahia” (Kortazar, 2008). Etengabeko berrikuntza eskatzen du abangoardiak, dinamismoa, beti aurrerago begiratzea eskatzen duen bidea: “R. Cansinos-Assensek 1919ko manifestuan esan zuenez, abangoardiek ez dute eskola bat osatzen, etengabeko berrikuntza mugimendu anizkoitza baizik” (Kortazar, 2008). Abangoardiako mugimenduen artean, surrealismoa izan zen gehien hedatu zena. Hegoameriketean, surrealismoarekin harreman estua duen ultraismoa (1919-1922) sortu zen, dadaismoaren, futurismoaren eta kubismo literario edo kreaionismoaren ezaugarri zenbaitekin, eta Espainian, ordea, Rozasek (1974) “generación de la vanguardia” (“27ko belaunaldia” izenez ere ezaguna) deiturikoa izan zen esanguratsuen (Kortazar, 2008).

U. Ekok hurrengo ezaugarriekin laburbiltzen du bere abangoardiaren definizioa (Kortazar, 2008): ekintzaren aldekoa, beti zerbaiten aurka, nihilismoa nagusi, balio

32 Abangoardiako joeren eredu edo iturri nagusiak literatura unibertsalean, idazkera berriaren lehen eragileak Mallarmé, Joyce, Apollinaire [kaligramaren aitzindaritzat], Maiakovsky, Marinetti, Rabelais, gerraondoko literatura frantziarra eta Happeninga dira Rubio & Falcóren ustez (1984:53); ordea, esparrua zehaztuz, abangoardia bisualari dagokionez, “uno de los autores reclamados como fundadores de la retórica del concreto-visualismo es Mallarmé” (Rubio & Falco, 1984:53).

tradizionalen aurka, gazteriaren biziera eta ludismoa goratzen da (“artearen kontzeptu jolastia eta transzendentziarik gabea, ingenioaren eta umorearen aldeko joera nagusitu”), bizitzaren larridura eta suizidioa nagusitzen dira irtenbidetzat, arte arloan nork bere buruaren propaganda egiten du, arte autonomoaren aldeko apustua, artea deshumanizatua agertzen da (ez da historiarik, ez sentimendurik, ez aitopenik), zentzurik ez duen artetik hurbil, irudi harrigarrien eta metafora ezohikoen mirespen nabarmena. Aurrerapen zientifiko eta teknikoak ere oso kontuan hartzen dira abangoardian, batez ere futurismoan. Azpimarratzekoa da, abangoardiaren arte tradizioaletik urruntzeko joerak zaildu egiten duela ulermena³³.

Kortazarrek (2008) zehaztu bezala, abangardia oso berantiarra izan zen euskal literaturan. Euskal literaturako abangoardiaren lehenengo adibideak J. M. Agirre “Xabier Lizardi” eta Estepan Urkiaga “Lauaxeta”ren poema liburuetan³⁴ agertzen dira, Berpizkunde garaiko modernismoaren aldeko ahalegin estetikoaren erakusgarri. Autore abangoardista garaikideen artean, Bernardo Atxaga³⁵ da irakurleena eta eragileena, izan ere, Artzek ez du jarraitzaileirik izan. Esperimentalismoari, berriz, Ramon Saizarbitoriaren lehen liburuetako objektualismoak eman zion hasiera, Kortazarren (2008) iritziz.

Abangardiak azpitalde edo adar ezberdinak ditu, horietako bi ekarriko ditut, Artzeren poesiagintzan ere islatzen direlako hauen ezaugarri nabarmenetakoak. Adar bi horiek kreazionismoa eta ultraismoa dira³⁶. Kreazionismoa, Kortazarrek (2008) gogoratu bezala, XX. mendearen bigarren hamarkadan sortu zen abangardiako mugimendu poetikoa da. Kreazionisten artean idazlerik ezagunenak eta esanguratsuenak Frantziako P. Reverdy, Txileko V. Huidobro eta Espainiako G. Diego eta J. Larrea dira. Huidobroren (kreazionismoaren aitatzat hartzen dena) hitzetan, “kreazionismoa eskola

33 Hori da Artzeren *Isturitzetik Tolosan barru* poema liburuaren zailtasunaren arrazoi nagusia.

34 “*Arrats-beran* (1935) liburuan [...] europar abangoardiaren zantzuak. 'Langille eraildu bati' poemak, adibidez, objektualismo eta teknikarekiko atxikimendu berezi bat erakusten du, eta 'Mutxurdinaren ametsak', berriz, nolabaiteko amets giroarekiko lotura” (Kortazar, 2008).

35 Atxagaren literatur ibilbidearen hasiera lotzen dugu abangoardismoarekin. Bere *Ziutateaz* (1976) liburua zutarriz hartzen da, ez bakarrik bere sorkuntzaren barruan, baita euskal literaturgintzan ere, oro har. Frankismoaren amaiera aldean, euskal literatura astindu zuen Atxagak, Gabriel Aresti (poesiagintzan) eta Ramon Saizarbitoriarekin (eleberrigintzan) batera. *Ziutatea* liburuan literatur genero ezberdinak tartekatzen ditu: poesia, ipuina eta antzerkia. Atxagaren hasierako urteak experimentalismoarekin (Añamendi, 2013) lotu izan dira, oro har, eta zehatzago esateko, surrealismoarekin (Añamendi, 2013) eta dadaismoarekin (Egile ezezaguna, 1992) batik bat.

36 Poema kreazionista eta ultraisten lagin interesgarria dakar Diez de Revengak (1995).

Beñat Sarasolaren (Etxeberria, 2013) arabera, Italiako poesia konkretuaren eragina ere badu Artzeren poesiagintzak, eta haren erreferentzia ugari ikusten ditu liburuan.

bat baino gehiago teoria estetiko bat da” (Kortazar, 2008). Aurretik ere aipatu bezala, estetikaren garrantzia azpimarratu behar da, Artzeren poesiagintzan ere hain garrantzitsua dena. Ezaugarri bereizgarriena edo oinarrizkoena, Kortazarren (2008) arabera, “hizkera poetikoaren eta hizkera arruntaren arteko banaketa da”. Horrez gain, kreaionismoak baliabide berriak ekarri zituen: ortografia, morfojoskera eta semantikaren arauen apurketa, puntuazioaren desagerpena, hizki solteen idazketa... Baliabide hauen erabilera ageriko ezaugarria da Artzeren poesiagintzan ere.

Beste aldetik, ultraismoa dugu. Abangoardismoaren barruko joera hau, Kortazarrek (2008) gogoratu bezala, 1918an agertu zen estrainekoz *Grezia* aldizkarian, “errusiar futurismoaren eta Europako mendebaldeko dadaismoaren oinordeko”. Indar edo oihartzun handiena, berriz, Espainian eta Hispanoamerikan izan zuen. Korronte honek bizitza laburra izan zuen, lau urte inguru iraun³⁷ zituelako bakarrik. Kortazarren (2008) arabera, Guillermo de Torrek eman zion izena mugimendu honi, eta R. Cansinos-Assensek atera zuen lehen manifestua 1918an. Ultraismoa eta Artzeren poesiagintza batzen duen ezaugarri esanguratsua “pinturarekiko eta arkitekturarekiko harremana” (Kortazar, 2008) da, eta tipografiak (letra mota, tamaina...) eta letra hurrenkerak (goitik behera, zirkuluan, atzekoz aurrera...) ere garrantzia handia hartzen dutelarik. Kortazarrek (2008) azpimarratu moduan, ultraismoa laburra izan arren, “Espainiako poesiaren berrikuntzan erabakigarria gertatu zen”.

Arestiko joerak, abagoardiari loturiko ezaugarriak kanpotik jasorikoak dira, hegoamerikakoak izan edo Europakoak (Frantzia, Ingalaterra...) izan, baina Artzeren poesiak bertoko ezaugarriak ere baditu, hau da, euskal tradizioko ezaugarriak, literaturara ekarri dituenak. Besteak beste, bertsolaritzaren bertso-egitura, errima eta, batez ere, bat-batekotasuna edo freskotasuna poema batzuetan, irakurlearengana zuzenago iristeko asmoz, izan ere, bertsolaritza kaleko hizkerarekin lotuago dago literaturarekin baino, eta Artze hizkera horren indarra eta txinparta harrapatzen ere saiatzen da, kaleko esaera ingenuoak ekarriz, Sautrelari (2013) eskainitako elkarrizketan autoreak berak onartzen duen moduan. Bertsolaritzaren jarraitzaile eta miresle da, haiek euskal munduan duten garrantziaz eta merituz konturatzen da eta erakutsi egiten du gainera, bertsolari pare bati omenezko hitzak eskainiz, eta baita

³⁷ *Ultra* aldizkaria izan zen ultraismoaren sehaska haren bizitza motzean (Kortazar, 2008), abangoardiaren barruko korronte horren jarraitzaile ziren idazleek bertan argitaratzen zituzten euren lanak.

haietako baten bertso zati bat ere tartekatuz³⁸. Ez da hor amaitzen baina, herri tradizioetik jasotako eraginen erabilera, sorgin hizkuntzak³⁹ ere aipamen pisuzkoa merezi duelako. Artzek morrontzen eta inposaketen kontra egiten duen aldarrikapenean, erlijio kristaua baztertu eta kritikatzear batera, tradizio edo sinesmen zaharrak (naturari loturiko mitologia eta sorginak) balioesten ditu, euskaldunon historiarekiko jatortasun ekintza moduan.

4. ONDORIOAK

Hizketagai izan dugun liburua, *Isturitzetik Tolosan barru*, ez da bertsotan idatzitako poema sorta bat bakarrik, ez da poema-liburu ohiko eta arrunta. Liburu honek formaren lanketa eta garapen handia islatzen du eta diseinu lan luze eta zorrotza. Liburua bere osotasunean hartu behar da, eta lan artistiko oso baten aurrean gaudela esan daiteke, adierazpen artistiko ezberdinak biltzen dituen beregan: eskultura, arkitektura, musika... Artzek poema-liburu bati atera dakioken etekinik handiena ateratzen diola uste dut, eskura dituen baliabide guztiak (edo gehienak) erabiliz poema bakoitzean adierazi nahi duena ahalik eta xehetasun eta sendotasun handienaz emateko; horregatik, Izagirrek (2000:8) ere “Hitzaren alderdi guztiak ustiatzeko talentua” daukala uste du. Horren adierazgarri nabarmenetakoa liburuko ekfrasian eta abangoardiaren eraginetan aurkitzen da.

Bestalde, obrak bere ibilbidea egin du, eta egileak aurreikusi gabeko eta bere eskuetatik kanpoko merituak ere bildu ditu. Denboraren astinduari eutsi (atenporala) dion lan urrienetako baten aurrean gaude, are gehiago, gaur egun ere berritzaile eta apurtzailea da generoko beste lanen ondoan jartzen badugu, horregatik, Landabasok (2007) ere “ex-tempore” etiketa eransten dio. Artzeren hitzek, nire iritziz, kantuei esker iraun dute, Laboaren eskutik asko, Lete... Izan ere, abesti horietako batzuek eresi izatera heldu direla esaten ausartuko nintzateke: “Txoria txori”, “Gure bazterrak”⁴⁰...; sentimenduz beteta daude abestiok, hunkigarriak dira, eta urteen igaroan euren esentzia mantentzeko dohaina dute, usteldu gabe, ugertu gabe, eta euskal nortasunari eta sentimenduari

38 Ikus 6.25. eta 6.26. erenskinak. Bata, Xenpelar bertsolari ezagunaren omenezkoa da. Bigarrena, ostera, Udarregiren omenezko hitzez gain, haren bertso zati baten lagina ere eskaintzen du. Udarregiren berezitasuna da, idazten ez zekienez, bertsoak horman marratxoaren bidez “idazten” omen zituela gogoratzeko (marratxoak ageri diren igeltso zatiaren argazki bat ere badakar Artzeren liburuak bertsoaren ondoan).

39 Ikus 6.27. eranskina. Sineste zaharren arabera, Anbotoko Mariren hitzak izan daitezke.

40 Abesti honen jatorrizko letra ez dago aztergai dugun liburuan.

abesten diotenez, luzarorako. Esango nuke subkontzientzian gorde diren hitzak direla, irakurriz baino entzunez, autorea Artze den jakin gabe. Artzeren liburuek, beti berritzaile, beti apurtzaile, publiko murrizta izan dute, plazaratu ziren garaian “arroztasunez hartu zuten, euskaldungotik urrun zegoen zerbait bailitz” (Landabaso, 2007), eta gaur egun “norbaitek desfasea aurki diezaioke” (Landabaso, 2007). Lehenengo adierazpenarekin ados nengoke, literatura unibertsalaren aroekiko atzeratua izan den gure herrian, formari dagokionez esperimentalak izatez gain, ideologikoki konprometitua zenez (morrontzen kontra altxatzen dena), jendeak distantzia hartu zezakeelako. Hala ere, ez diot desfaserik aurkitzen, gaurkotasuna mantentzen duela uste dudalako, bai literarioki, berritzaile eta apurtzaile (berrogei urte beranduago!)⁴¹, bai ideologikoki, morrontzen (kristaua, politikoa, soziala...) aurkako aldarrikapen moduan, tamalez, askatasuna ukatzen diguten arrazoiak orduko berdinak direlako.

Horrez gain, Xabier Letek eta Jose Angel Irigaraik komentatzen duten moduan (Etxeberria, 2007), aurreko euskarazko lan literarioen moldeekin apurtzen du liburu honek, berritasunez josita, abangoardiaren fruitu garaikidea izanik, eta harrotasun sentimendua zabaldu zuen artisten eta bestelako herritarrengan, harrotasun nazionala. Euskal literaturak abangoardian ere lekurik bazuela erakutsi zuen, sasoi berrietara egoki zitekeela, burua altxatu eta aukeren espektro zabal horri begiratu eta ilusionatzeko bidea ireki zuen. Esan daiteke aitzindaria izan zela Artze euskarazko abangoardian, European zabaldurik zeuden mugimendu eta joerak ezagutu eta bere egin zituen lehenetakoa izan baitzen, behinik behin. Hala ere, idazle eta kultur eragileen artean eragin eta zer esan gehiago izan duela uste dut, herritar xumeengan baino. Horregatik, zutarriz hartu arren euskal poesiagintzaren (eta literaturaren, oro har) ibilbidean, irakurle aldetik oihartzun txikia izan duela onartu behar da, eta Galarragaren (2012) susmoekin bat egiten dut, jarraitzaile eskasiak denboraren igaroaz ahanztura ekarri duenez, beharbada, “ahanztura horrek kitzikatuta etorri zen 2007ko edizio” berria Pamielaren eskutik.

Artzeren jarraitzaile kopurua eta haren obraren oihartzuna gorabehera, artistikoki azpimarratzeko lana iruditzen zait, formaren aldetik, batez ere, baina baita hizkerari dagokionez ere. Bata da aurpegi ausarta, apurtzailea, eta bestea, kontserbadoreagoa, herri hizkuntzara hurbiltzeko ahalegina, hizkera sinpleagoa erabiliz; hau da, abangoardia lana egiteko grinaz, baina herria atzean utzi gabe, elkarren kontra diruditen

41 “San Martinek daitor liburuan berean, garaiari pultsua hartuta: 'Ez baita erreza izanen liburu honi kidekorik aurkitzea’” (Galarraga, 2012).

bi helburu dituen, abangoardia eta herria poesiara hurbiltzeko ahalegina, lan zaila eta gure miresmena merezi duena. Ez diogu behar duen omena eskaini. Publikazio berri bat egitea ez da nahikoa. Bitartean, nire lan apal hau, *Isturitzetik Tolosan barru* altxor-lanaren harribitxi zenbait erakustera dator, ustiapen lan txiki bat harrobi erraldoi batean. Amaitzeko, poesiak dar-dar eta dir-dir egiten duelako, poesiaren balioa azpimarratzen duten Artzeren hitzekin itxi gura nuke nire partetik: “Ongi esana bakarrik buruan geratzen dek, baino ongi eta ederki esana bada bihotzeraino juten baita” (Etxeberria, 2007).

5. BIBLIOGRAFIA

IZAGA SAGARDIA, C. eta IBARGUTXI OTERMIN, F. (2013): *Jose Irazu Garmendia*, Añamendiko Eusko Entziklopedia, <<http://www.euskomedia.org/aunamendi/53907>>, [2015/07/06].

BOU, E. (2001): *Pintura en el aire*, Valencia: Pre-textos.

DE LA CALLE, R. (2005): *El espejo de la Ekphrasis. Más acá de la imagen. Más allá del texto.*, Lanzarote: Fundación Cesar Manrique (CUADERNAS bilduma), <<http://www.fcmanrique.org/recursos/publicacion/elespejo.pdf>>, [2015/06/27].

DIÉZ DE REVENGA, F. J. (1995): *Poesía española de vanguardia (1918-1936)*, Madrid: Castalia.

EGILE EZEZAGUNA (1992), *Ziutateaz (I y II)*, Sancho el sabio: Revista de cultura e investigación vasca, 2. zenbakia, 359-360 orrialdeak, <<http://www.google.es/url?sa=t&rct=j&q=&esrc=s&source=web&cd=16&ved=0CFwQFjAP&url=http%3A%2F%2Fdialnet.unirioja.es%2Fdescarga%2Farticulo%2F954826.pdf&ei=fliaVdGhKcW1UZzgnrgP&usg=AFQjCNFwvR9EH6IsbxgloxH3RTdw3NpMTg&sig2=8nJ8UmtQMASJNnoKnJghUw>>, [2015/07/06].

ETXEBERRIA, H. (gidaritza) (2007/06/02): “Isturitzetik Tolosan barru”, Sautrela telebista-saioa, etb1. (egun horretako programaren bideoa)

_____ (2013/12/28): “Beñat Sarasolak 'Isturitzetik Tolosan barru' liburua ekarri du gogora”, etb1,

<<http://www.eitb.com/eu/telebista/programak/sautrela/bideoak/oso/1869252/benat-sarasolak-isturitzetik-tolosan-barru-liburua-ekarri-du-gogora/>>, [2014/08/01].

FERNÁNDEZ SERRATO, J. C. (2003): *¿Cómo se lee un poema visual? Retórica y poética del Experimentalismo español (1975-1980)*, Sevilla: Ediciones Alfar.

- GALARRAGA, A. (2012): “Artze frikia” in *Kritiken hemeroteka*, <<http://kritikak.armiarma.com/?p=5391>>, [2014/08/20].
- GARCÍA, L. F. (2011): *La ékfrasis en la poesía contemporánea española: de Angel González a Encarnación Pisonero*, Madrid: Devenir.
- GARRO, L. (zuzendaria) (2013): “Ez dok amairuren sorreraz...”, *Tumatxak* telebista-saioa, <<http://www.eitb.com/eu/bideoak/osoak/1439836/bideoa-ez-dok-amairu-taldearen-sorrera-josanton-artzeren-hitzetan/>>, [2015/03/03].
- ITURBIDE, A. (2000): *B. Gandiaga, J. A. Artze eta X. Leteren poemagintza. Poesia tradizionalaren bidetik*, Donostia: Erein, 36-39. or.
- IZAGIRRE, K. (2000): *XX. mendeko poesia kaierak: J. A. Artze*, Andoain: Susa.
- KORTAZAR (2003): *Artzeren poesiaren pentsakizunaz*, <<http://lapurdum.revues.org/1146>>, [2014/08/01].
- _____ (2007): “Munduaren ikuspegia” in *Kritiken hemeroteka*, <<http://kritikak.armiarma.com/?p=1944>>, [2015/03/10].
- _____ (2008): “Abangoardia” in *Literatura Terminoen Hiztegia*, <http://www.euskaltzaindia.eus/index.php?option=com_xslt&lang=eu&layout=lth_detail&view=frontpage&Itemid=474&search=abangoardia>, [2015/03-10].
- _____ (2008): “Kreazionismo” in *Literatura Terminoen Hiztegia*, <http://www.euskaltzaindia.eus/index.php?option=com_xslt&lang=eu&layout=lth_detail&view=frontpage&Itemid=474&search=kreazionismo>, [2015/03/10].
- _____ (2008): “Ultraismo” in *Literatura Terminoen Hiztegia*, <http://www.euskaltzaindia.eus/index.php?option=com_xslt&lang=eu&layout=lth_detail&view=frontpage&Itemid=474&search=ultraismo>, [2015/03/10].
- LANDABASO, G. (2007): “Isturitzetik Tolosan barru” in *Kritiken hemeroteka*, <<http://kritikak.armiarma.com/?p=1935>>, [2014/08/20].
- LEKUONA, J. M. (1970): “Isturitzetik Tolosan barru” in *Kritiken hemeroteka*, <<http://kritikak.armiarma.com/?p=2862>>, [2014/07/28].
- MONEGAL, A. (1998): *En los límites de la diferencia. Poesía e imagen en las vanguardias hispánicas*, Madrid: Tecnos.
- _____ (2000): *Literatura y pintura*, Madrid: Arco/Libros.
- RETOLAZA, I. (2007): “Hitzaren taupadak” in *Kritiken hemeroteka*, <<http://kritikak.armiarma.com/?p=19434>> [2014/07/28].

- _____ (2008): “Isturitzetik Tolosan barru (1969)” in *Euskal Literaturaren Hiztegia-Idazlanak*, EHU, <<http://www.ehu.es/ehg/literatura/?p=665>>, [2015/05/26].
- ROJO, J. (1999): “Mundua gizonarentzat egina da, baina ez gizona munduarentzat” in *Kritiken hemeroteka*, <<http://kritikak.armiarma.eus/?p=2052>>, [2015/05/26].
- RUBIO, F. & FALCÓ, J. L. (1984): *Poesía española contemporánea (1936-1980)*, Madrid: Alhambra [2. edizioa].
- ZULUAGA, E. (2009): “Artze, Josanton - “Hartzabal”” in *Euskal Literaturaren Hiztegia-Idazleak*, EHU, <<http://www.ehu.es/ehg/literatura/idazleak/?p=170>>, [2014/05/03].

6. ERANSKINA

6.1.

**Usurbil'go elizaren hormak,
ze horma sendoak!
beren zulotan
txoriek dituzte
kabiak egiten;
han dira sortzen,
han,
beren kantuak toteltzen.**

6.2.

**gizon eri bat
ta ez gorputzez,
kizkurtuta
ta ez minez;
lurrean apo
zilborra laztantzen ari.
«zer duk?»
jasotzen du burua:
«oi! ama euskera
hil zorian hago;
errumes, gaixo
kanpora hoa...
ai! ama errukiorra
hireak egin din.
apoa apo
erortzen zaio burua.
zilbor-lasztanketari ber lotzen da.
apo horrek diona
eskubiko belarrian sartu zait
zomorro baten gisan.
nere ezkerrekoak ikusten baitu
aspaldian gure eritasunez ohartuak gerala
eta geroztik egunero kantatzen digula hariztegiko
basoilarrak
denboretan ukan dugun errumestasonaren harra
uxatuaz.
ez,
besteen aberastasunagatik
ez
dugu gurea utzi nahi.
ez inolataz!
gureari traidore
besteenean arrotz...
ez horixe!**

eta zeren...

6.3.

**gizakumea = kristaua
euskalduna = fededuna**

kontuz!!!

**bestela,
gure asaba zaharrak
hasarretuko dira.**

6.4.

**Portugaldar batek
honela hitzegin zidan behin:**

**—«kagak diru egingo balu
gu, behartsuok,
ipurdian
zulorik
gabe
jaioko giñukek».**

6.5.

aldin, / Illun-Aroetako griña txarrek / atximurtzen badizkizu erraiak / eta Pierre de Lancre izateko gogoia sortzen bazaizu,
/ kinkik atera baiño lehen / itzul zaito ohera / zure emazte gajoarengana, / nahiko lan izango duzu han-ta, / eta ase itzatzu
/ behin ere osoki bete ez dituzun / haren atsegin nahiak.

6.6.

**amaren sabela utzi bezain azkar
gorapillo bat egin zidaten
zilborrean,
ez nendin ahaz
lagatako lehen presondegiak.**

**nere iritzia jakin gabe
kristautu ninduzuten.
neri galdegin gabe
eskoletan erdal jakintxu egin,
gero makina baten murrontzari
lotzeko.**

6.7.

azal legunekoa
mami trinko, sosten-lokarrietan hestutua;
borobil, gogor
mamiaren daldarra
emakume haren bularra

behatz muturretan barru
sartzean,
bere gerriaren lerdanak
igo zidan bihotza
itoaz zintzurra.

6.8.

Aia-ko plazako sagastian
inguru-minguru nabillelarik
udare mamitsu, gozo, eder bat
sumatu dut
han goian, hegetan
bi adarren tartean zintzilik.

.....


zein urrun dauden udareak...
eta ahaltzeekin burukatu behar
pruttu hoiek jatea
lotsagarria balitz bezela

eta baldin
azkenean
lortzen baduzu
hain usai gozozko emaitz hori
ez harritu aurkitzen baduzu
halako azal legun,
zalegarri'pean

zu baino lehen
ateak iriki gabe
harra beltzek egiña dutela han berea,
intxaur ustela bezela utzirik hutsa:
zoko-gustu miña aho-sapaiarentzat
eta mami latza
hortzak han aurkituko duana.

Sueziarrek pix egiten dutenean
eskuak garbitzen dituzte.
Inglesek ere bai
ta Alemaniatarrek.
Prantsez batzuek ere bai.
nik behinere ez.
ez dago beharrik.

6.12.



6.14.

**Joxe-ri emaztea ostu ziotenean
pakeagatik, ez zuen ezer esan
eta muuu! eginaz aldegin zuen.**

**bere alaba bortxatu ziotenean
pakeagatik, ez zuen ezer egin
eta kurrinkaz ospo egin zuen.**

**bere semeak goseak hil zizkiotenean
pakeagatik, ez zuen iñor jo
eta beee! eginaz izkutatu zen.**

**etxetik bota zutenean
pakeagatik, ez zuen ezer esan
eta kolkaren gisa zokoratu zen.**

galtzak kendu ta atzea astindu zioten:
pakeagatik, izilik gelditu zen.
orduun, arratoi batek
«amen» batean irentsi zuen Joxe
zingurria zelakoan.

6.15.

**EZ egin horrelakorik
EZ maita halatan
EZ bentse hartaz
EZ edan hortatik
EZ bete zure nahia
EZ mintza gauza hoietaz**

ezena atzetik,

danak korrika,

**« EZ korri, okerrago duzte-ta... »
anika-motzak beharbar:**

6.16.

eri
erio
eri
herria
erio
derio
deri
der
derri
derriooo
derri
derrigorrean
sartu beharra
gogorra
lehorra
negarra
baita gezurra ren adierazpena

egia
eguna
argia
gizatasuna
zuek
kantatzen duzuten
kantuak
gorriz
berotuz
bihotzak
egiak
argiz
piztuaz
begiak
garai batean
eman zenduten hitzak
aurkitzen du hor
oi hartzuna


6.17.



6.18.



6.19.



6.20.

OTX! ATX! UTX!

HOTZA_{ren} HATSA ote da HITZA

ala HUTSA_{ren} aurka altxatako HOTSA

edo HITSA hauste arren UTZI_{tako} HATZA

6.21.

Z zzzzzzzzzzzzziri
zzzzzzzziri
zzziri zozo
ziri zoro
zoro
zozo

ziri
zir i
zirri
zirri!
zirrikitu

zarra-zarra
ZETA zaharra
zirri-zirri
zirikatu
zirrikituan zalantza
ZETA zaharrak

zabal
zabal zelaia
zabal zabalik

zirurika
zoro

**zuztarra
zuzen
luze
zorrotz**

**zirt edo zart
ziri
z
i
r
r
i
z
t
a
n
zart
zipotz**

**zir-zir
zapa-zapa
zapla-zapla
zanga-zanga
zar-zar
zizt
zara - zara
zizar
zizare**

**zehir zintz
zotzzz
hotzzzzz
tzzzzzzz
zzzzzzzzzzzzzzzzzzzz Z**

6.23.

berriz ni: betiko ur. hura, ni ta halako	
	AITOR
danok bat; betikoak.	hodei bitik bat tximist muki ta arnasa argia kosk gosea karraxia bular iztar hodei ... izan eza ... izan ote ... ?

6.24.

			ur euri elur ...		urtzi igurtzi ehortzi etsi etsi hertsia etzi ertz hortz hotz motz zotz lotsa lot hots hats atx hatz huts utx utz putz patz pitz pix hitz hits
			... lur urre burdin		
iz	gordin	garbi	urdin		
izotz			zuri		
izor			ori		
izo			gorri		
gizon			horri		
gizen		urri	hurr		
izen		irri	egur		
izan		zirri	hezur ...	zur	
izar		ziri	zuhur	zurr	
		zori	sudur	zurr	
izar		txori	bil	gezur	
bizar		zori	ilargi	zintzur	
lizar	zerri ...	zorri	hil	zintz	
izara	gerri	zorro	ile	zintz	
	berri	orro	iltze	irrintz	
izu	abherri	zoro	giltz	ihintz	
izurde	atzherri	zozo	biltzar	mintz	
izurdi		zoko	batzar	hitz	
izurrite		zokor ...	bakar	hitz	
		mozkor	zakar	haitz	
			zatar	haritz	
izurri			zator	ari	
izuri			zador	ahari	
izai			zabor	hari	
izatz			zabar	harri	
iztar			zapar	har	
iztarbegi			apar	ar	
izpegi			zabal	sar	
izpazter			zabal	sare	
			apal	sari	
izerdi			ahal	sarri	
izkira			ahal	larri	
izoki			epel	lahar	
izeba			beltz	larru	
izpi			beldur	marru	
izil			horbel	arro	
izaize			harbel	arre	
			ergel	ar	
			igel		

6.26.

Alkain Juan Joxe, «Udarregi». Bertsolaria. Aia-n, 1829-ko Urrillaren 1-ean jaioa. Ttikitandik Usurbilen bizitua. «Udarregi» basetxean lehenik, «Urkamendi» izenekoan gero eta azkenik, hil arteraino, «Artikula-haundi»-n bere bizi-modua: baserrian eta artzaintzan. 67 urtetan hil zen.

**kontsejura etorri naiz
paper baten billa,
pentsatzen jarri ta ere
hau duk alper pilla.
pluma eta tintero
bastoi ta makilla,
pobriak altxatzeko
a zer kuadrilla.**



.....
.....
**aitortuko ditugu publiko egiak
gure kolejiuak : sagardotegiak.
: itzalpetegiak.**

(1)

«Udarregi»-ri omena.

(1) Udarregiren izkiribuetako bat Artikula-haundiko horma batetik igeltzoan hartua.

pabe

6.27.

**ez erran gezurrik;
ez ebats;
sar espantuak, zapa harrokeria;
atxik hitza hitz;
ez gal nehoren errespetua;
lagunt beharretan dena...**

MARI, gure mendietako jeltuaren legea

(Pierre Lafitte Jaun Kalonjearen
«Atlantika-Pirene-tako Sinheste Zaharrak»
liburutik hartua. 17gn. orrian)

burdigala